

SANTA XIXILI EGUNA

Antza denez, Zezilia erromatar neskatxa istorio mitiko baten pertsonaia dugu, birjintasuna gordetzeagatik beste gizaseme batzurekin batera martiritua izan zena, II/III. mende ingurua. Erdi Aroaren amaiera aldera hasi zen zabaltzen heriotza ezarri ziotenean kantzri hasi zela, tresnarik ere jotzen zuela... Urteak aurrera, Gregorio XIII.a Aita Santuak 1594an izendatu zuen musikarien patroia, ospakizunetarako azaroaren 22a ezarriz. Handik aurrera askoz ere gehiago zabaldu zen martiri musikariaren ospea, hainbat musika tresna jotzen ari del irudikatuz margo eta eskulturetan, baita erromatar garaian existitzen ez ziren organo eta pianoarekin.

Olerkari, itsu eta hainbat hiriren zaindaria ere bada Zezilia.

Musikari taldeek bere zaindariaren eguna ospatzeko ohitura aspaldikoa da.

Amara Berrian hogeita hamar bat urte daramatzagu Santa Xixili Eguna ospatzen, mitoa izan arren arrazoi/aitzaia ederra eskaintzen baitigu bertako musikazaleoi kalean aritzeko, bai argi-soinu nola ilunabarreko kale-jira eta otorduaz gozatzen.

(Mikel Legorburu, 2017.11.20)